

Gurutzea, bandera eta ezpata. 1936ko gerrako garaileen memoria-lekuak Tolosan, Lehen Frankismo-garaian (1936-1945)

(The Holy Cross, the Flag and Sword. The Realms of Memory of Spanish Civil War Victors in Tolosa during the First Years of Franco's Regime (1936-1945))

ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel

Aranzadi Zientzia Elkarte. Zorroagaina, 11. 20014 Donostia
merrazkin@aranzadi-zientziak.org

Artikulu honetan, Tolosan (Gipuzkoa), 1936ko gerrako garaileek frankismo-garaian ezarri zuten memoria-politika aztertzen da. II Errepublikaren aurka matxinatutakoek memoria politiken bidez, haien erregimena zurituko zuen doktrina ezarri zuten, erregimen politiko eta garai berrien nortasun-ezaugarriak bizitzako alderdi guztietan, erakunde guztietan eta eguneroko jarduera politiko guztietan inposatuz. "Memoria-lekuak" kontzeptuaren bidez, espazioaren, denboraren eta erregimen berriaren balioak errepresentatzen zituzten pertsonen memorien kontrola nola gauzatu zuten aztertzen da.

Giltza-Hitzak: Memoria historikoa. Memoria-lekuak. Lehen frankismo-garaia (1936-45). Espainiako Gerra Zibila (1936-1939).

El presente artículo analiza la política de la memoria aplicada por los vencedores de la guerra del 36 durante el franquismo en la localidad guipuzcoana de Tolosa. Los sublevados en contra de la Segunda República impusieron, a través de sus políticas de la memoria, una doctrina que justificara su régimen en todos los ámbitos, organismos públicos y actividades políticas del día a día. Se examina asimismo cómo se materializó el control del espacio, del tiempo y de los monumentos en honor de las personas que representaban los valores del nuevo régimen.

Palabras Clave: Memoria histórica. Lugares de memoria. Primer franquismo (1936-45). Guerra Civil Española (1936-1939).

Le présent article analyse la politique de la mémoire appliquée par les vainqueurs de la guerre de 1936 durant le franquisme dans la ville de Tolosa. Les insurgés contre la Seconde République ont imposé, à travers leurs politiques de la mémoire, une doctrine qui justifiera leur régime dans tous les domaines, les organismes publics et les activités politiques jusqu'à aujourd'hui. On y étudie également la manière dont s'est matérialisé le contrôle de l'espace, du temps et des monuments en honneur aux personnes qui représentaient les valeurs du nouveau régime.

Mots Clés: Mémoire historique. Lieux de Mémoire. Premier franquisme (1936-45). Guerre Civile Espagnole (1936-1939).

*“Hemos olvidado la guerra,
en un afán de construir la paz
entre los españoles;
pero no hemos olvidado
ni olvidaremos nunca la victoria”*

Torcuato Fernández Miranda, 1973

1. SARRERA

Hitz hauek¹ Torcuato Fernández Mirandarenak dira, 1973ko abenduaren 20an Luis Carrero Blanco erail ostean Espainiako Gobernuko behin behineko Presidentea zenarenak², ekintza armatu horren inguruan TVEn irakurritako alokuziotik hartutakoak. Gerra Zibila amaitu eta 34 urtetara esandako hitz hauek ongi laburbiltzen dute ondoko lerrotan aztertu nahi den frankismoak landutako memoria-politika; hau da, 1936ko Gerraren garaipenaren memoria.

II. Errepublikako erregimen demokratikoaren aurka altxatakoak zirenez gero, matxinatuek ez zuten ez legitimitaterik, ez legezketasunik. Honen aurrean, lehenik, gerran bertan, haien boterea armetan, altxamenduan bertan oinarritzen saiatu ziren. Eta ondoren memoria politiken bidez, haien erregimena zurituko zuen doktrina presatatu zuten, indarrean zeuden legeak ezeztatu eta lege berriak ezarri zituztelarik.

1936ko abuztuaren 11a izan zen Nafarroa ipar-mendebaldetik zetozen matxinatutako erreketek Tolosa kontrolpean hartu zuten eguna³: “entraron en Tolosa (las vanguardias) entre las aclamaciones y vítores de la población”. Egun hori erregimen politiko eta garai berrien mugarriztat zedarritu zen. Nafarroako zutabeen buruzagia zen Rafael Latorre teniente koronelak izendatutako alkateak eta Tolosako Udal Kudeaketa Batzordeak edo udal gestorak⁴ bere markak ezarri zituen biztanleen bizitzako alderdi guztietan, sortu zituzten erakunde guztietan eta baita eguneroko jarduera politiko eta sozial guztietan ere.

Tolosan, gainerako herrietan bezala, frankismoak ezarri zituen politika guztien artean, nagusienetako bat memoriaren politika izan zen. Boterearen ekimena, memoriaren eta ahanzturaren finkapena alegia, hiru memoria-lekutan gauzatu zen: es-

1. Lan hau Tolosako Udalaran eta Aranzadi Zientzia Elkartearen ekimenez eta Juantxo Agirre-Mauleonen zuzendaritzapean “Tolosa 1936-45” egitasmoa eta Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Segurantzaz sailaren eta Aranzadi Z.E.-ren ekimenez Francisco Etxeberriak zuzendutako “Gerra Zibilean desagertutako pertsonen hobien ikerketa eta kokapen egitasmoa” ikerketen ondorioetan oinarritu da. “Tolosa 1936-1945” ikerketa ondoko liburuan dago argitaratua: ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel. *Memoriaren izenak. Errepresioa eta giza-eskubideen urraketa Tolosan, Gerra Zibilean eta Lehen Frankismo-garaian (1936-1945)*, 1. Arg. Donostia: Aranzadi Z.E., 2011. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiot Pío Pérezi, EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia departamenduko irakasleari, artikulu honen idazketan emandako gomendioengatik eta laguntzarengatik.

2. Erredakzioa: “El orden es completo en el país, y será mantenido con toda firmeza”. In: *La Voz de España*, Donostia, 1973/12/21; 8 or.

3. AGMAV, 2677. k., 23B. karp., 6 fol. Tolosan eta Tolosaldean Gerra Zibilaren bilakaera eta frankismo-garaiko errepresioa lantzeko ikus hurrenez hurren: ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel; SAIZAR, Joxemi; ZUBELDIA, Leire. *1936ko Gerrako oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean*, 1. arg. Tolosa: Galtzaundi Euskara Taldea eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, 2008; 26-57 eta 58-119 or.

4. TUA, A-1-233, 1 fol., 1936/08/11 u.k.b.a.l.

pazioaren memoria-lekuetan edo kale-izendegian, denboraren memoria-lekuetan edo egutegian eta pertsonen memoria-lekuetan. Lehenak espazioaren nagusitasuna sendotu eta islatzen zuen, memoriari espazioaren nagusitasun sinboliko, ez-material eta egunerokoa esleitu nahirik. Bigarrenak denboraren nagusitasuna ezarri eta egunero-kotasunari erritmoa jartzen zion. Eta hirugarrena berriz, “Jainkoagatik eta Espainiagatik eroritakoen” memoriari lotua eta estatu berriaren irudien aldarrikapenei lotua zegoen, besteak beste erdigune soziologikoetan monumentuak ezarriz. Erregimen frankistak ideologia, propaganda, historia eta denbora artikulatu zituen bere berreraiketean bertan, horretarako memoria historikoaz baliatu zelarik.

Aipaturiko guztia lortzeko, isiltasunera baztertu zuten errepublikanoei eta abertzaleei zegokien guztia. Errepublikaren gobernuak, Euzkadiko Jaurilaritza, beraien gerra-balentriak, pertsona ospetsuak, erreforma-politikoak, jaiak... ezabatuak eta herritarren memoriatik deuseztatuak izan ziren berrogei urtez. Gatazkak bestearen, garaituaren, deuseztapen fisiko edo sinbolikoaren bidez ezabatu zituen. Suntsipena, errepresioa, erbesteak, zentsura eta isiltasuna izan ziren ahanztura ezartzeko erabilitako praktikak. Lau hamarkadatan, diktadurapean bizi izan ziren herritarrak inkomunikatuta geratu ziren erbestean edo zigortuta, haien harremanak berregiteko aukerarik gabe eta gizarte komun batean bat egiteko aukerarik gabe.

2. MEMORIA-LEKUAK

Memoria, gizabanakoaren ahalmen mentalaz harago, soziala da eta taldekoa bihurtzen da talde jakin bateko gizabanakoek konpartitzen dutenean, denen artean emanen diotelarik forma narrazio, sinbolo eta erritualen bidez. Gizataldeak beretzat esanguratsiak eta eragingarriak diren oroitzapenak aukeratzen ditu eta denboran zehar gordetzen eta elikatzen ditu, elkarbanatutako eta egituratutako diskurtsoetan plazaratuz⁵.

Oraina iraganeko elementuen berreraikuntzez osatzen da: kontzeptu ezberdinak interpretatuz, identitatea sortuz, aldaketa soziala ahalbidetuz, iraganeko gertakariari zilegitasuna emanez, kontzeptu ezberdinak interpretatuz, identitatea sortuz edo berrosatuz, aldaketa sozialak ahalbidetuz, komunitateko balioetan heziz⁶... Honela, gizarte orok, denboran zehar, hurrengo belaunaldiei transmititzeko garrantzitsutzat hartzen duen jakintza-corpus bat du; eta honi, memoria kolektiboak deritzogu⁷.

Giza talde bereko pertsonak gertaera berberari buruzko interpretazio desberdinak egiteko gai badira ere, egia ere bada giza taldeek memoria partekatu komun bat sortzen dutela mitoetan, ele-zaharretan, sinesteetan, erlijioetan, eta abarretan adieraziaz⁸. Memoria kolektiboak dialektika, tirabira, gatazka, elkarrekintza eta kontsentsu sozialen emaitza dira. Honela, memoriaz baino memoriez hitz egin beharko genuke⁹.

5. RUIZ-VARGAS, José María. “¿De qué hablamos cuando hablamos de ‘memoria histórica’? Reflexiones desde la Psicología cognitiva”. In: *Entelequia. Revista Interdisciplinar*, 7 zkia., 2008; 53-76 or. <<http://www.eumed.net/entelequia/es.art.php?a=07a02>>.

6. CONNERTON, Paul. *How societies remember*, 1. arg. Cambridge: Cambridge University Press, 1989.

7. MOLINERO, Carme. “Lugares de memoria” y políticas de memoria”. In: GÓMEZ ISA, Felipe (zuz.). *El derecho a la memoria*, 1. arg. Bilbao: Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe, 2006; 298 or.

8. CANDAU, Joël. *Antropología de la memoria*, 1. arg. Buenos Aires: Claves Nueva Edición, 2006; 63 or.

9. CUESTA BUSTILLO, Josefina (ed.). *Memoria e historia*. In: *Ayer*, 32 zkia., 1998; 210-215 or. eta AGUILAR

Memoria kultura-baliabidea izateaz gain, baliabide erretoriko, ideologiko, identitario eta politikoa ere bada, dela boterea erabiltzeko, dela hura kritikatzeko, dela hura zalantzan jartzeko; edo bestela, haren aurrean tinko irauteko. Connerton-en iritzian¹⁰ ez dira soil-soilik orainaldiko baldintzak eragina dutenak iraganaldiaren hautematean; aitzitik, orainaldiaren bizipenak ere iraganeko gertaeretan eta beraren hautematean du eragina. Iraganaldiko irudiek, bere iritzian, orainaldiko gizarte-ordena legitimatzeko balio dute. Horregatik, memoria historikoaren kontrola edukitzea mendekotasun-tresna sendoa da¹¹. Horrek ederki azaltzen ditu memoria historikoaren eta *egia historikoaren* gaineko monopolioaren borrokak, gero ikusiko den bezala.

Memoria kolektiboaren ideia Maurice Halbwachs-ek sortua da. Haren ustez, oroitzapen guztiek, indibidualak direla irudituta ere, gizarte-ingurune jakin batean dute haien jatorria: gizabanakoa kide den taldean edo taldeetan. Honela, memoria kolektiboaren ideia banakako memoriaren eta memoria historikoaren ideiarekin kontrajarri zituen eta ondorioztatu zuen, ezen, oroitzapen oro talde- (familia, auzo, hiri) identitateen arabera egituraturik dagoela eta taldeen elkargune zehatzaren emaitza gisa baino ez dela existitzen. Bere hitzetan norbanakoak soil-soilik gogoratzen du baldin-eta talde baten edo batzuen eta pentsamendu kolektiboko korronte baten edo batzuen ikuspuntuan kokatzen bada¹². Honela, memoria ez da soil-soilik gizabanakoaren zeregin psikologiko bat, gizartetik bereizi ezin den zerbait baizik. Azkenik, egile honek memoriak zeregin sozial bat betetzen duela uste zuen. Hau da, iragana orainaldiko errepresentazioak zurrizteko erabiltzen dela. Beraz, memoria kolektiboa egitate historikoen belaunaldi arteko helarazpena litzateke, askotan ahoz eta modu informalez bururatua. Beraz, Halbwachs-entzat memoria kolektiboa talde bateko kideen memoria da, zeinek beraien interesetatik eta orainaldiko erreferentzia-markotik abiatuta iragana berreraikitzen baitute¹³.

Memoria kolektiboaren kontzeptuaren inguruan, Pierre Nora zuzendutako *Lieux de mémoire edo memoria-lekuak* frantziar historiografia sakon markatu zuen¹⁴. Pierre Nora orduan memoria iraganaren orainaldiko instrumentalizazio bezala definitu zuen; hau da, helburu politikoeekin iraganaz egin daitekeen erabilera¹⁵. Gizartean memoriaren politika publikoak memoria kolektiboan eragin handia du eta neurri handi batean baldintzatu ere egiten du. Memoria-lekuak funtsezko atalak dira memoriaren politikan, hau da, iraganaren eta orainaren arteko loturan, memoriaren eta historia-

FERNÁNDEZ, Paloma. *Políticas de la memoria y memorias de la política*, 1. arg. Madrid: Alianza Editorial, 2008; 53-52 or.

10. CONNERTON, Paul. *How societies remember*, 1. arg. Cambridge: Cambridge University Press, 1989.

11. LE GOFF, Jacques. *El orden de la memoria*, gaztelarazko 1. arg. Barcelona: Paidós, 1991; 181 or.

12. HALBWACHS, Maurice. *La memoria colectiva*, gaztelarazko 1. arg. Zaragoza: Prensas Universitarias de Zaragoza, 2004; 36 or.

13. ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel. "1936ko Gerrako garaituen eta frankismo-garaiko biktimen memoria kolektiboa". In: ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel eta AGIRRE-MAULEON, Juantxo (argk.). *1936ko Gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria*, 1. arg. Bilbo: UEU, 2009; 119-128 or.

14. Nora lan honetan frantziar nazioaren ikurren azterketa egin zuen, hau da, frantziarrak nazio bakarrean batzen zituen elementuen berrikuspina (1996), frantsesezko jatorrizko lana: *Les Lieux de mémoire*, Paris, Gallimard (Bibliothèque illustrée des histoires), 3 tomo : 1 t. *La République* (1 bol., 1984), 2 t. *La Nation* (3 bol., 1987) eta 3 t. *Les France* (3 bol., 1992).

15. NORA, Pierre. "La aventura de *Les lieux de mémoire*". In: CUESTA BUSTILLO, Josefina. *Memoria e Historia*, Ayer, 32 zkia., 1998; 17-34 or.

ren artekoan. Noraren esanetan, memoria-lekuak memoria selektiboki hezurramitu deneko gune, ez ezinbestez fisiko, horiek dira, eta gizonen eta emakumeen borondatez edo mendeen eraginez haren ikur argitsuenen gisa iraun dutenak¹⁶: jaiak, ikurrak, monumentuak, ospakizunak, gorazarreak etab.

Pierre Nora memoria, iraganaren orainaldiko instrumentalizatzea bezala definitu zuen; hau da, helburu politikoekin iraganaz egin daitekeen erabilera gisa. Honetaz mintzatzerakoan memoria, zeina harentzat iraganaren kontaketa mitikoa zen, eta historia, zeina iraganaren kontaketa kritiko eta urrunduena zena, kontrajarri zituen¹⁷. Memoria-lekuak memoria sustatzen diren lekuak dira, non iraganaren gaineko ikuspegi jakin bat lantzen den. Beraz, memoria-lekuei buruz hitz egiten dugunean, memoria kolektiboa bildu, babestu eta errepresentatzen diren guneei gagozkie. Hau da, gizarte-kolektibitate batek bizi izandako iragan baten oroitzapenak. Memoria-lekuak, aldi berean, hiru dimentsiotan agertzen dira erlazionaturik: materiala, sinbolikoa eta funtzionala. Materiala, gizarte testuinguru batean espazio fisiko bat hartzen dutelako; sinbolikoa, iraganean bizi izandako esperientziak ordezkatzeko dituelako; eta funtzionala, memoria ugariak denboran gorde eta helarazteko aukera ematen dutelako¹⁸.

3. GARAILEEN MEMORIA POLITIKA, MEMORIA-LEKUEEN BIDEZ

II. Errepublikako erregimen demokratikoaren aurka altxatukoak zirenez, matxinatuek ez zuten ez legimitaterik ez legezkotasunik. Azken honi erantzuteko, indarrean zeuden legeak ezeztatu eta lege berriak sortu eta praktikara eramane zituzten. Estatu Guber-nuburu izendatu berritan, 1936ko azaroaren 1eko dekretu batean¹⁹, Francok uztailaren 18az geroztik agintari matxinatuengandik ez zetozen xedapen guztiak ondorioz gabe utzi zituen. Gainera, batzorde batek ordura arteko legeria guztia berrikusteari ekin zion, "interes nazionalen aurkako" guztia indarrak gabe uzteko ahalmenarekin.

Alabaina, zaila gertatu zitzaion estatu berriari bere legimitatea lortzea. Espainia-ko II. Errepublika, zeinaren aurka matxinatu baitziren, herri-subiranotasunaren legiti-mitatean oinarriturik baitzegoen. Estatu biztanleen eta munduaren aurrean euren jokabidea zuritu nahi zuten; hori dela eta, haien ekintzak zurituko zituen doktrina prestatu zuten. Erregimen politiko berriaren agerpena berezko nortasun ezaugarriekin berretsi zen.

Matxinatuen artean ezberdintasun ideologikoak egonik (falangistak, tradizionalis-tak, katolikoak, monarkikoak, e.a.), honek doktrina koherente bat prestatzea erago-tzi zuen. Haien printzipioak inposatzeko eta komunikabideak eta propaganda-bideak kontrolatzeko elkarren lehian aritu ziren, gatazka askotxo sortaraziz. Beraz, hasieratik bertatik ez zen doktrina bateratu bat egon, multzo ideologiko bat baizik²⁰.

16. NORA, Pierre. *Realms of memory: rethinking the french past*, ingelesezko 1. arg. New York: Columbia University Press, 1996; XVII-XVIII or.

17. NORA, Pierre, *op. cit.*, 1996; 3 or.

18. NORA, Pierre, *op. cit.*, 1996; XV-XXIV or.

19. Estaturuaren 56/36 dek., *BOE*, 1936/11/05, 22 zkia., 111 or.

20. CALVO VICENTE, Cándida. "Franquismo y política de la memoria en Guipúzcoa. La búsqueda del consenso carlista (1936-51)". In: ALTED VIGIL, Alicia. *Entre el pasado y presente. Historia y memoria*, 1. arg. Madrid: UNED, 1995; 163-182 or.

Erregimen frankistak ideologia, propaganda, historia eta denbora artikulatu zituen memoria historikoaren berreraiketan. Bere zuritze bidea iraganean bilatu eta historia bere helburuen arabera norabidetzeko, estatua memoriaz baliatu zen. Horrek guztiak berekin zekarren egitateen eta ekintzen memoria finkatzea. Hau guztia, orainaldira egokituz eta estatu sortu berriaren legitimitatearen argudioa osa zezan. Prozesu horretan, haien jokabidea legitimatuko zuen egitate sorta bat herritarren memorian txertatzeaz arduratu ziren agintari frankistak. Orduan, berrinterpretaturiko iraganeko ekintzak eta orduko gertaerak jarraikortasun historiko bat ezabatu nahirik burutu ziren. Jai, oroitzapen-omenaldi, kale eta mota horretako ospakizun ugariak xede horretara bideratu ziren. Gerra Zibilaren osteko urteetan, erregimen berriak, gizartean gatazkaren interpretazio jakin bat inposatzeaz gain, 1936ko Gerra gorrien aurkako gurutzada modura goretsi zuen. Honela, Tolosan, nazionalak sartu eta lau egunera aro berriaren jaiotza ospatu zen²¹: “como testimonio de admiración y reconocimiento del pueblo de Tolosa al Glorioso Ejército Español al ser libertado de la opresión de las turbas rojas (...) para recordar esta epopeica redención de nuestra Querida Nación”. Bertako parrokian eliz ospakizunak ospatu ondoren Jesusen Bihotza udaletxean eta eskola publikoetan berrezarri zuten.

Errepublika garaiko sekularizazioari amaiera eman eta gurutzadek hasiera eman zitoten aro berriari. Tolosako Udal Kudeaketako batzordekideek erlijio sinesmen praktikekin erlazioa zuten erabaki anitz hartu zituzten: meza nagusietara udal ordezkariak bertaratzea, hilerri zibila eta katolikoa behar bezala banatzea; Tolosako banderari Jesusen Bihotza ezartzea, Izaskungo amabirjina Tolosako zaindaritzat izendatzea edota II. Errepublika garaian hobiratutako damugabeen gorpuzkinak hilerri zibilera eramatea²², besteak beste.

Era berean, ikurren bidez eta pertsona ospetsu jakin batzuk mitifikatuz, hainbat balio helarazten ziren, besteak beste, adorea, sakrifizioa, heroikotasuna, kultura, abertzaletasun espainiarra... Esate baterako, Franco diktadoreak dekretu bidez heroi nazional eta espainiar gazteentzat sakrifizioaren sinbolo zen José Antonio Primo de Riveraren memoria omentzeko modu ezberdinak xedatu zituen²³. Honela, Frankismoak eszenatoki erdian ezarri zuen Gerra Zibila, liberalismoak eta demokraziak eragindako hondamendiaren helmuga eta Espainiaren berpizkundearen abiapuntu gisa hartuz. Gerraren zentralitatea bi fronte ezberdinen bidez ikuskatu ahal zen; batetik, II. Errepublika eta izu-gorria eta, bestetik, Jainkoa eta Espainiaren alde erorien memoria eta estatu berriaren irudien goraiapamena.

II. Errepublikaren gaitzespenean, erregimen berriak erabilitako erreminta gorenena hezkuntza eta testu liburuen erabilpena izan zen²⁴. Tolosako Udal Kudeaketa Batzordeak erregimenaren aldeko pertsona bat izendatu zuen konfiskatutako liburuak garbi-

21. TUA, A-1-233, 5 fol., 1936/08/12 u.k.b.a.l.

22. Hurrenez hurren: TUA, A-1-233, 33ifr fol., 1936/10/02 u.k.b.a.l.; TUA, A-1-233, 168ifr.-170 fol., 1937/11/12 u.k.b.a.l.; TUA, A-1-234, 17ifr.-21 fol., 1938/06/22 u.k.b.a.l.; TUA, A-1-234, 48ifr.-53ifr fol., 1938/09/30 u.k.b.a.l. eta TUA, A-1-234, 62ifr.-71 fol., 1938/11/11 u.k.b.a.l.

23. Estaturuaren z/g dek., *BOE*, 1938/11/17, 140 zkia., 2432 or.

24. ÁLVAREZ OSES, José Antonio (*et al.*). *La guerra que aprendieron los españoles. República y guerra civil en los textos de bachillerato (1938-1953)*, 1. arg. Madrid: Los Libros de la Catarata, 2000.

tzeko²⁵: “para que vaya clasificando los libros incautados a algunos dirigentes marxistas separatistas huidos de la localidad”. Matxinada Espainiaren gainbehera zertu zuen kaosaren erantzule zen eta II. Errepublikarekin amaitzeko ezinbesteko bidetzat aurkezten zen. Tolosan, bertako Lehen Hezkuntzako Kontseiluan, elizaren ordezkari bat izendatzeaz gain²⁶, matxinatuen menpeko geratu zen hilabetean bertan, Burgosko Hezkuntza Juntak agindutako arauak praktikan jarri zituzten, ondoko hiru helburuekin²⁷:

a) de que la enseñanza responda a las conveniencias nacionales, b) de que los juegos infantiles, obligatorios, tiendan a la exaltación del patriotismo sano y entusiasta de la España nueva, c) de poner en conocimiento del Rectorado respectivo toda la manifestación de debilidad u orientación opuesta a la sana y patriótica actitud del Ejército y pueblo español, que siente a España Grande y única desligada de conceptos antiespañolistas que sólo conducen a la barbarie.

Historiaren irakaspena aginduen bidez arautu zuten. Esate baterako, José Antonio Primo de Riveraren bizitza eta berak egindakoak nola irakatsi xedatu zuten²⁸. Iragan loriatsuak ere orduko orainaldiaren beharrianetara atondu zituzten²⁹: “Tolosa, (...) ha sido desde su origen la población más importante de la provincia, y sede de los acontecimientos de la misma”. Inongo zehaztasun historikorik gabeko eta egiaztatu gabeko hainbat pasarte ere behin eta berriz goraiatu izan zituzten: Gipuzkoa Gaztelako koroarekin “anexionatzeko” erabakia Tolosan hartu zela, Gipuzkoako Ermandadeak bertan sortu izana, Loiolako Iñigoren kanonizazioa bertan burutu izana edota XVI. mendeko Belateko gudan, Nafarren aurkako gerran, gipuzkoarren erdiak tolosarrak izatea. XIX. mendeko Karlistaldiak ere 1936ko Gerra Zibilarekin erlazioan ezarri zituzten: “Primera cruzada carlista (22 octubre de 1833) (...) la lucha de la España auténtica tradicional representada por los carlistas contra la España bastarda, afrancesada y europarizante de los liberales”. Gerra Zibilean, tolosar tradizionalistek errepublikanoen bidez jasandako errepresioa salatu eta erreketen tolosarren parte hartzea behin eta berriz goraiatzen zen³⁰. 1936ko gurutzada ondoko arrazoi historikoetan justifikatzen zen³¹:

Tolosa de nuestros días en su carácter toda ella de población eminentemente industrial, por tanto, de gran afluencia de diversas gentes no naturales de la misma, se ha visto envuelto en el colofón de un siglo de decadencia y bancarrota de la política liberal: la revolución comunista; de cuya terrible epidemia social, gracias a Dios, tuvo la suerte de ser liberada pronto por la región Navarra con la que juntos los buenos hijos de Tolosa han peleado bravamente por el honor y salvación de la autentica España.

Alabaina, hezkuntza ez zen izan iraganeko irudien gordailu bakarra. Erregimen frankistak Espainiaren historiaren ikuspegi propioa euskarri ezberdinen bidez transmititu zuen: NODO, EFE agenzia, *Movimiento*-aren prentsa, pelikulak, hitzaldi politi-

25. TUA, A-1-233, 56 fol., 1936/10/28 u.k.b.a.l.

26. TUA, A-1-233, 12ifr fol., 1936/09/02 u.k.b.a.l.

27. TUA, A-1-233, 5ifr fol., 1936/08/21 u.k.b.a.l.

28. Hezkuntza Nazionalaren Ministerioaren z/g agindua: *BOE*, 1938/11/19, 142 zkia., 2466 or.

29. EZQUIAGA, Simón (*et al.*). *Liberación de Tolosa: 3er año, 11 agosto 1939*, 1. arg. Tolosa: [s.n.], 1939; 69 or.

30. EZQUIAGA, Simón. *Tolosa en el Glorioso Alzamiento Nacional*, 1. arg. Tolosa: [s.n.], 1938; 19-65 eta 71-83 or.

31. EZQUIAGA, Simón (*et al.*) *op cit.*, 1939; 71 or.

koak... Jendeak *gertatutako hori* propagandak aurkeztutako errealitatearekin erlazionatzea lortu nahi zen, erregimenaren legitimazioarentzat argumentu eraginkorra izanik. Iraganaren gaitzespenaz gain, *Espainiaren berpizkundearen* mitoa eraiki zuen frankismoak³².

Memoria-leku hauek aztertzeak frankismoaren osaketa ideologikoa eta memoriaren eta historiaren arteko erabilpena eta uztarketa nolakoa zen ikusteko aukera ematen du, beti ere beraren legitimazioa edota kontsentsua xedetzat zuena. 1936ko udazkenean eta 1937ko udaberrian, armadaren agintearekin eta geroago Falangearenarekin, jada boterea Generalisimoaren eskuetan zela, 1936an eraturako gobernuak hainbat dekretu argitara eman zituen, erregimen berriaren ikurren eta ospakizunen oinarriak jarri zituztenak: bandera, ereserkia, jaiak edota egutegia. Banderari dagokionean, altxatutakoek gerra garaian hainbat bandera erabiltzen zituztela eta, Defentsa Nazionalako Juntako presidentek, Cabanellas jeneralak, bandera gorri-horia berrezarri zuen espainiar estatuko bandera bakartzat³³. Gerra garaian, Falangeak zuen eragina tarteko, Francok berak dekretu baten bidez arranoaren armarria gehitu zion banderari³⁴.

Estatuaren ereserkiari dagokionean, II. Errepublikaren aurretik zegoena berrezarri zuten, "Marcha Granadera" bezala ezagutua zena³⁵. Azken dekretu honetan Falangearena, Legioarena eta Oriamendi ereserkiak "kantu nazionaltzat" izendatuak izan ziren; kantu hauek "adeitasunez, errespetuz eta estimuan hartu beharrekoak ziren". Tolosako bandak martxa militarretan ez ezik, ekitaldi zibil guztietan ere jotzen zituen ereserki horiek³⁶. Gobernazio ministerioak enblema, intsignia eta abarren erabilera arautu ondoren³⁷, Tolosako Udal Kudeaketa Batzordeak eraikin publikoetan Falangearen bandera ezartzea eta udal langile guztiek erreketen txapela gorria edo falangearen burukoa jantzita eraman behar zutela erabaki zuen³⁸. 1937ko irailean, Tolosako Komandantzia Militarren ekimenez kudeaketa batzordeak sinboloen erabilera arautu zuen, hau da, banderak, Francoren argazkiak... non eta nola ezarri³⁹. Era berean, 1936ko abuztuan, Gipuzkoako Gerrako Junta Karlistak Tolosaldeko herri guztietara praktikara eraman beharreko jarraibideak helarazi zituzten: bi koloredun bandera eta gurutzea eraikin publikoetan jartzea eta Jesusen Bihotza birtronatzea eta udaletxeetan berrezartzea⁴⁰.

32. REIG TAPIA, Alberto. *Memoria de la guerra civil. Los mitos de la tribu*, 1. arg. Madrid: Alianza editorial, 1999.

33. Defentsa Nazionalako Juntako Presidentearen 77/36 dek., *BOJDNE*, 1936/08/30, 14 zkia., 55 or.

34. Barne Ministerioaren 470/38 dek., *BOE*, 1938/02/03, 470 zkia., 5578-5579 or. Tolosako Udal Kudeaketa Batzordeak armari berria bordatua zuen bandera enkargatzea erabaki zuen 1938ko apirilean. Iturria: TUA, A-1-233, 195-197 fol., 1938/04/12 u.k.b.a.l.

35. 226/37 dek., *BOE*, 1937/02/28, 131 zkia., 548-549 or.

36. TUA, A-1-233, 17 fol., 1936/09/02 u.k.b.a.l. eta TUA, A-1-233, 65ifr fol., 1936/11/25 u.k.b.a.l.

37. Gobernazio ministerioaren ordena, *BOE*, 1939/04/28; Gobernazio ministerioaren ordena, *BOE*, 1939/05/29; Gobernazio ministerioaren ordena, *BOE*, 1939/06/27.

38. Hurrenez hurren: TUA, A-1-233, 5ifr fol., 1936/08/21 u.k.b.a.l. eta TUA, A-1-233, 157 fol., 1937/08/20 u.k.b.a.l.

39. TUA, 1992. k., 847 fol., 1937/09/24, a.u.e.l.

40. AUA, [katalogatu gabeko espedientea].

3.1. Denboraren memoria-lekuak

Frankistak, behin boterea erdietsita, memoria berri bat prestatzeko eta finkatzeko denbora kontzeptuaz nagusitzen eta egutegia gizarteratzen ahalegindu ziren. Orobat, erregimen frankistak memoria bidez giza taldearen gertaerak finkatzen saiatu ziren. Egutegia bizitza politiko, erlijioso, sozial eta egunerokoaren denboraren antolatzailea⁴¹, egutegiarekin bizitza sozialaren erritmoak antolatu eta finkatzea izan zuten helburu.

1936ko uztailaren 18a, matxinada militarren eguna, estatu berriaren gertaera fundatzailea bilakatu zen. Aro berriaren inaugurazio unea eta ordutik aurrerako denbora ondoko unitateetan neurtu zen: “I, II, III. Garaipen Urtea”. Jai nazional berriak sortu ziren eta ordura arte jaiegunak ziren beste batzuk lanegun izendatu ziren. Horrela bi helburu lortu nahi izan ziren, alde batetik aro berri bati hasiera ematea eta bestetik garai errepublikanoan sortutako memoria ezabatzea. Bizitzako ohiko alor guztietan aro batekin hautsi eta aro berri bat hasteko borondatea agerikoa bazen, jaietan are irmotasun handiagoz jartzen zen agerian. Ricoeurren hitzetan, oroitze ariketa gizarteak jaiak gordetzen dien jarduera da⁴². Gobernazio ministerioak 1939an udal dokumentuetan “Garaipenaren Urtea” adierazpena gehitzeko agindua eman zuen⁴³.

Urteurren ospakizunak oso ugariak ziren eta Espainia berriak bere “zentzu nazionala” berreskuratu behar zuen egutegi katolikoari data garrantzitsu askoren ekarpena egiten zion. Memoriaren gurtzaren biziagotze horretan, besteren artean, ondoko egunak ospatzen hasi ziren: Eroriaren eguna, Tradizioaren aldeko Martiriaren eguna, Garaipenaren eguna, Batasunaren eguna, Independentziaren jai nazionala, Calvo Soteloren heriotzaren urteurrena, Mugimendu Nazional Aintzatsuen eguna, Gatibu ohien eguna, Caudilloaren eguna, Arraza Eguna edo Hispanitatearen eguna, Falangearen sortze-mintzaldiaren oroitzapenezko eguna, José Antonioren [Primo de Riveraren] heriotzaren urteurrena, tokian tokiko askapen ospakizunetaz gain⁴⁴.

Egutegi berria aurreko garaia ezabatzen eta ordezkatzeko saiatu zen, Errepublikaren garai demokratikoa alegia. Aberriaren aldeko ideiei traizio egitea eta “marxismoa bezalako atzerriko ideiak” sartzea eragotzi nahi zen, aro berri bat abiarazi nahi zen. Esate baterako, 1937ko apirilko dekretu baten bidez, otsailaren 11, apirilaren 14a eta maiatzaren 1a lanegun izendatu zituzten⁴⁵. Erregimen frankistak laneguntzat izendatutako II. Errepublikako jaiegunak ondokoak ziren: otsailaren 11a, I. Errepublikaren proklamazio eguna; apirilaren 14a, II. Errepublikaren proklamazio eguna; maiatzaren 1a, langileen eguna. Azken hauek bere “atzeritar izaeragatik edota eragin marxista izateagatik” desagerrarazi zituzten. Hau guztia ongi laburbiltzen du Esteban Bilbao politikari karlistak, Tolosan, hitzaldi batean, maiatzaren lehenari buruz esandakoak⁴⁶:

41. RICOEUR, Paul. *La memoria, la historia, el olvido*, gaztelerazko 1. arg. Madrid: Editorial Trotta, 2003; 463-474 or.

42. RICOEUR, Pierre, *op. cit.*, 2003; 475 or.

43. Gobernazio Ministerioaren ordena, *BOE*, 1939/04/03.

44. RÚJULA, Pedro. “Conmemorar la muerte, recordar la historia. La fiesta de los mártires de la tradición”. In: *Ayer*, 51 zkia., 2003; 67-86 or.

45. 253/37 dek., *BOE*, 1937/04/13, 175 zkia., 978 or.

46. EZQUIAGA, Simón (*et al.*) *op. cit.*, 1939; 65 or.

[...] de amargos recuerdos, fiesta que llama del rencor, en que las multitudes designadas, al servicio de la Internacional, recorrían las calles sedientas de sangre, siendo víctimas escogidas por los explotadores del proletariado, que se llamaban sus compañeros del trabajo y los conducían al crimen.

Diktadurak ezabatu zuen beste ospakizuna inauteria izan zen, urtero berretsi zela-rik erabaki hori⁴⁷. Inauteria erregimen frankistarentzat arriskutsua eta mehatxatzailea zen; anonimatuaren herritarrek beraien adierazpenak eta boterearen kritikak helarazi zitzaizketelako. Tolosaren kasuan, 1937ko urtarilaren hasierako erabakia baten bidez, inauteriak prestatzeko batzorde bat eratu zen. Halere, urtarilaren 20ko batzarrean batzordekide batek Tolosako erakunde erlijioso baten ideiak azaleratuz inauteriak ez ospatzea proposatu zuen. Kudeaketa Batzordean, eztabaida gogorak izan ondoren eta alkateak ospakizun honen balio tradizionalak nabarmendu ondoren, Inauteri murriztuak ospatzea onartu zuten. Alabaina, Gipuzkoako eta Bizkaiko Gobernadore Zibilak ospakizun horiek beste data batetara pasarazi zituen, hala egingo ez balitz Udala desagitea behartuta egongo zela jakinaraziz. 1937ko otsailean, Gobernadore Zibilaurreko erabakia berretsi zuen: “reitero hoy la prohibición absoluta de tales festejos, impropios del momento patriótico en que vivimos”⁴⁸. Azkenik, 1937ko Inauterietako *Astelenita* egunez, inauterietako astelehenez, Nazionalek Malaga menpean hartu zutela eta antolatutako ekitaldien aitzakian ospatu zituzten herritarrek inauteriak. Gero, herabe eta ez ofizialki, baina herriko agintarien zurruntasun handiegirik gabe, herritarrek urtero ospatu zituzten Udaberriko Festa izena hartu zuten inauteriak⁴⁹.

Matxinada ostean, Elizak bere ospakizunekin, homiliekin, prozesioekin, ospakizun politikoetarako liturgia bat prestatu zuen⁵⁰. Berehala, egutegi tradizional katolikoaren zenbait data berreskuratzen saiatu ziren, erregimen berriaren balio jakin batzuez hornituta: Pilarreko jaia (urriak 12); San Jose eguna (martxoak 19), Santiago apostoluaren jaia (uztailak 25) edota Sortze Garbiaren eguna (abendua 8). Garaipen militarrik goratzen zituzten jai hauek, laster herri-deboziora eta aberri-suhartasuna biltzen zituzten erlijio eta ospakizun nazionalek ordezkatuak izan ziren. Eliza katolikoaren zenbait ordezkari, lehenik, eta erregimenaren ideologoen, geroago, ospakizun hauek ideologiaz bete zituzten eta zentzu politikoz josi zituzten jai zituzten jai tradizional guztiak. Erlijio ospakizunei ondoko esanahiak ezarri zizkieten⁵¹: Pilarreko Andre Mariren jaia, arrazaren eguna; Santiago apostoluaren jaia, Espainiako patrio eguna; Sortze Garbiaren eguna, espainiar sentimendu tradizionalaren eta Infanteriako Armadaren eguna etab.

Frankismoak jaien memoria berriari dagokionez, honako jaiegunak izendatu zituen: urriaren 1a (Buruzagiaren Eguna), uztailaren 18a (Altxamendu Nazionala), apirilaren 1a (Garaipenaren Eguna), apirilaren 19a (Falangearen eta JONS-en batasuna), irailaren 29 (Eroritako Eguna). Burgosen sinatutako agindua baten bidez, uztailaren 17a, 18a eta 19a Jai Nazional gisa izendatuak izan ziren. Uztailaren 18a, Altxamen-

47. Z/g. agindua, *BOE*, 1937/02/05, 108 zkia., 321 or.; z/g. agindua, *BOE*, 1938/02/24, 491 zkia., 5931 or. eta z/g. agindua, *BOE*, 1940/01/13, 13 zkia., 277 or.

48. TUA, A-1-233, 1937/01/08 u.k.b.a.l. eta TUA, A-1-233, 1937/01/20 u.k.b.a.l.

49. GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan. *Tolosa zahar-berriak. Sobre el ayer de Tolosa*, 1. arg. Tolosa, Tolosako Udala, 2004; 28-29 or.

50. CENARRO, Ángela. “Los días de la “Nueva España”: entre la revolución nacional y el peso de la tradición”. In: *Ayer*, 51 zkia., 2003; 121-123 or.

51. 325/37 dek., *BOE*, 1937/07/22, 275 zkia., 2482 or.

duaren eguna jaieguna zen, uztailaren 17a Afrikaren Eguna (Afrika iparraldeko kolonietan militarrek matxinatu ziren eguna oroituz) eta uztailaren 19a Iraultza Nazionalaren Eguna (“Aberri bakarraren, nagusiaren eta librearen alde borrokatu eta lan egin zutenen” oroimenez)⁵². Tolosan Buruzagiaren egunean, besteak beste, diana, meza, desfile militarra, pilota-partiduak eta aberriaren ereserkiekin kontzertuak antolatu ohi zituzten⁵³. Gainerako ospakizun egunetan ere meza nagusia zen ekitaldien ernamui-na. Esate baterako, Tradizioaren Martirien egunean, eraildako zinegotziak gogoan zera lortu nahi zen⁵⁴:

[...] sirva en fecha tan señalada de estímulo y aliciente a las familias de esas víctimas para los gastos de alivio luto y demás necesidades que pudieran tener dispuso gratificar a cada una de ellas con la suma de 100 pesetas”.

Dena den, Tolosan estatu berria irudikatzen baliatu zituzten egunik nabarmenenak abuztuaren 11a (matxinatuak Tolosa menpean hartu zuten eguna) eta San Juan eguna (ekainak 24, Tolosako zaindariaren eguna) ziren. Egun horietan martirien memoria iraurarazteko ekitaldiak ziren ardatz⁵⁵.

1940. urtearen ondoren, jai nagusiak hiru izatera pasa ziren⁵⁶: uztailaren 18a, apirilaren 1a eta urriaren 1a. Uztailaren 18a matxinada nazionalaren urteurrena zen, egutegi ofizialean lan nazionalaren jai gisa agertuko zena. Horrela, esanahi bikoitza hartu zuen; batetik, matxinada aipatu gabe ospatzea eta, bestetik, lanaren eguna maiatzaren 1az bestelako sistema ideologiko batean ospatzea. Honekin matxinadatik sortu berria zen erregimenari halako kolore sindikalista eta populista bat eman nahi zitzaion. Bestalde, apirilaren 1ean, Garaipen eguna ospatzen zen, gerraren amaiera eta garai berriaren sorrera alegia. Azkenik, urriaren 1ean, Francoren estatu buruzagitzaren proklamazio edo botere-eskurapena ospatzen zen, Caudilloaren, buruzagiaren eguna zen.

Gerra Zibila amaitu ondoren, Tolosan eta estatu espainiar guztian, Garaipenaren Eguna ospatu zuen erregimen frankistak. Tolosaren kasuan, garai berriaren zutarriak ziren erlijioarekikoa atxikimendua, martirikiko memoria eta erregimen nazional-katolikoaren sinboloak irudikatu ohi ziren: Izaskungo Amabirjinari gerra irabazi izanagatik eskerrak emanaz kalbarioak antolatuz, martirien omenezko monumentua eraikiz eta festa egunean bandak ereserki aberkoiak joz⁵⁷.

3.2. Espazioaren memoria-lekuak

Herriak matxinoen eskutan geratu ahala, denboraz jabetzearekin batera, espazioaz

52. Hurrenez hurren: Estatuko Junta Teknikaren Presidentziaren agindua, *BOE*, 1937/09/28, 343 zkia., 3570.-3571 or.; 323/37 dek., *BOE*, 1937/07/16, 269 zkia., 2386 or.; Gobernazio Ministerioaren agindua, *BOE*, 1940/03/19, 79 zkia., 1913 or.; Barne Ministerioaren z/g dek., *BOE*, 1938/04/17, 543 zkia., 6818 or.; Barne Ministerioaren agindua, *BOE*, 1938/07/16, 16 zkia., 231 or.

53. TUA, A-1-233, 163ifr.-165ifr fol., 1937/09/29 u.k.b.a.l. eta TUA, A-1-234, 48ifr.-53ifr fol., 1938/09/30 u.k.b.a.l.

54. TUA, A-1-233, 190 fol., 1938/03/04 u.k.b.a.l.

55. TUA, 1992. k., 668 fol., 1937/08/09 a.u.e.l. eta TUA, A-1-233, 141ifr.-142 fol., 1937/05/12 u.k.b.a.l.

56. Gobernazio Ministerioaren z/g agindua, *BOE*, 1940/03/13, 73 zkia., 1767 or.

57. TUA, A-1-234, 122ifr.-128 fol., 1939/04/28 u.k.b.a.l.

jabetzeko nahia ere hedatu zen. Erregimen berriaren helduleku sinbolikoak ziren pertsona izenak, datak eta balioak memoria politikaren beste zutarrietako bat bilakatu ziren; aurretik aitzineko erregimenarenak zirenak ezabatu zituztelarik. Espazioaren kontrolean ere, memoria frankistaren ekimena garai hartako iraganaren ahanzturan eta orainaldiko oroitzapenaren ezarpenean oinarritu zen. Honela, altxamendu militarren osteko espazioaren konkistaren lehen ezaugarria bere militarizazioa izan zen. Kaleak desfile eta kalejira militarren eszenatoki bilakatu zituzten, baita esangura politiko, militar eta erlijiosoak zituzten orotarriz hornitu ere.

Herritarren eguneroko bizitzan espazio publikorik erreferenteena osatzen du kaleak, mezuak igortzeko gune nagusienetakoa da⁵⁸. Kalearen izena bera erregimenaren mezua helarazteko bidetzat bilakatu zen. Izen jakin baten inposatzea, botere horren ideologia edo balioak islatzen zituen botere eraginkorraren irudikapena bilakatu zen. Botere ekintza hauen helburua nortasunaren, kolektibitate baten edo gertaera azpimarragarri baten oroitzapena betikotzea zen, azken hau askotan data batean sinbolizatzen zelarik. Memoriaren, gertaeren eta protagonisten bitartez historian sartzea zuten helburu, historiaren gaineko ikuspuntu jakin baten isla izanik. Kaleak eduki ideologikoen bilgune eta igorgailu bilakatu ziren.

Kaleen eta plazen izendatzeak garrantzia handia erdietsi zuen memoriaren politikan. Estatuko bazter guztietara iritsi zen eta biztanleria osoan izan zuen eragina. Gerra hasi zenetik amaitu zen arte, konkistatutako hirien eta herrien izendegiak aldatuta sakonak izan zituen. Kaleei izen berriak jartzeak hurbileko zein urruneko iragan historikoa gogora ekartzeko xedea baldin bazuen, aurkako zeregina ere betetzen zuen, iragan bereko gertaerak eta pertsona ospetsuak ahaztuak izatera zigortzea, hain zuzen ere.

Matxinatutako botere militarrek oso azkar orokortu zituen berrizendatze prozesu honek, modu oso esplizituan, kaleak estatu berriaren historiaren memoria-leku bilakatzea zuen helburu, pertsona eta gertaera historikoak gogora ekarriz. Kaleak eta plazak berrizendatzea memoria betikotzeko modu bat zen, bizidunen memoria atxikitzeko desira bat, garaileak legitimatu eta zerbaiten ahaztura bultzatzeko modua zen. Halere, espazio publikoen izendegi zaharra desagerrarazi eta berria ezartzeko neurrigabeko joerak errepublikarekin zerikusirik ez zuten izenak ere kentzea ekarri zuen, hurrengo atalean, Felipe Dugiolsen kasuarekin ikusiko den bezala. Gehiegikeria horiek kontrolpean izateko, agindu baten bidez, “izenen aldaketak modu arrazionalen” egiteko irizpideak ezarri ziren⁵⁹. Eskola izenei dagokienean, Hezkuntza Nazionaleko Ministerioak agindu bidez zehaztu zituen izendapenen jarraibideak⁶⁰.

Gerraren testuinguruak azaltzen du zer dela eta agertzen ziren horren maiz kale askotan gerran nabarmendu ziren militarren izenak: Franco, Mola, Sanjurjo, Queipo de Llano... Bestalde, eroritako heroiak ere izendegian ordezkatuak zeuden; batzuek berezko izenarekin: Mola jenerala, Sanjurjo jenerala, Jose Antonio Primo de Rivera... Beste batzuk, aldiz, izenik gabeko heroi kolektibo gisa: Eroriak, Martiriak... Beste

58. DEL VALLE, Teresa. *Andamios para una nueva ciudad. Lecturas desde la antropología*, 1. arg. Madrid: Cátedra, 1997; 101-132 or.

59. Barne Ministerioaren agindua, *BOE*, 1938/04/14, 540 zkia., 6781 or.

60. Hezkuntza Nazionaleko Ministerioaren agindua, *BOE*, 1939/04/22, 112 zkia., 2214 or.

garai batzuetako iragan aintzatsu edo inperialarekin bat zetozen militar ospetsuak ere berreskuratutako izan ziren, horien memoriaren aldarrikapena egin nahirik.

Tolosaren kasuan, kale izen zenbait ezabatuak izan ziren; esate baterako “Convenio” kalea Martirien kaleak ordezkatu zuen, ondoko arrazoiarengatik: “contrario significativamente a las circunstancias políticas de esta nueva era”⁶¹ eta Errepublikaren etorbidea, Nafarroa etorbidea izendatzera pasa zen, erreketen nafarrak Tolosara handik sartu izana goraipatuz⁶²:

[...] el alto espíritu guerrero de la heroica Navarra cuyas columnas henchidas de cristiandad y patriotismo supusieron rescatar a éste católico pueblo de la opresión y barbarie de las milicias rojas y ensalzó significativamente lo que supone aun más que una generosidad sin límites un abnegado sacrificio el proceder de todos esos pueblos navarros que con tanta abundancia como regularidad han remitido y siguen remitiendo víveres y donativos para el abastecimiento de las fuerzas que acompañan en estos frentes.

Era berean, toponimia irizpideekin izendatutako zenbait leku-izen aldatuak izan ziren, horretarako ondoko irizpideak jarraituz⁶³:

- Nazional-sindikalismoarekin zerikusia zutenak: Generalisimoaren etorbidea, Madrid etorbidea eta Dibisio Urdinaren kalea.
- Gerraren bilakaerarekin zerikusia zutenak: Abuztuak hamaika kalea (1936ean matxinatuak Tolosara sartu zireneko data), Nafarroa etorbidea (erreketen nafarrak udalerrri hartara sartu zireneko kalea) eta Sagardia zutabea etxebizitza-multzoa.
- Erlijioarekin zerikusia zutenak: Pío XII etorbidea, Sakramentu kalea, Pilar auzoa eta Juan de Ávila kalea.
- Matxinatuen alde eroritakoekin eta martiriekin zerikusia zutenak: Martirien kalea; Checa komandantearen kalea (Tolosako frontean hildako militarra); Pantaleón Zabala etxebizitza-multzoa (frontean hildako tolosar erreketen kapitaina); Antonio Elosegí kalea (errepublikarrek fusilatutako tolosar tradizionalista).
- Karlismoarekin zerikusia zutenak: Carlos VII plaza, Foruen plaza eta Zumalakarregi kalea.

Bide publikoei jarritako izenek Franco jeneralaren diktaduran bere horretan iraun zuten. Haren heriotzaren ostean, diktadura desagertu berria gogoratzen zuten izenak ezabatzeko prozesua hasi zen. Tolosan, 1979ko ekainean eta uztailean aldatu zituzten aurrez aipatutako frankismoaren memoria-leku izenak. Horretarako bi irizpide nagusi erabili zituzten: alde batetik jatorriko leku izenak berreskuratzea (Korreo kalea, Berdura plaza, plaza Berria, plaza Zaharra, Rondilla kalea etab.) edota Euskal Herriarekin edo euskal kulturarekin erlazioa zutenak ezarriz (Gudari kalea, Araba pasealekua, Lizardi plaza, Euskal Herria plaza, Zuberoka etxebizitza-multzoa etab.). Karteldegian euskarazko

61. TUA, A-1-233, 26ifr.-27 fol., 1936/09/18 u.k.b.a.l.

62. TUA, A-1-233, 7ifr or., 1936/08/21 u.k.b.a.l.

63. TUA, A-1-233, 26ifr.-27 fol., 1936/09/18 u.k.b.a.l.; TUA, A-1-233, 41ifr.-42 fol., 1936/10/02 u.k.b.a.l.; TUA, A-1-234, 147ifr.-152 fol., 1939/08/04 u.k.b.a.l.

adiera gaztelerakoari lehenestea onartu zen. Nomenklatura aldaketa honetan eztabaida handiak izan zituzten herritarrek aukeratutako zinegotzien artean. Eztabaida hau areagotu egin zen 1976an, Etxalarren, Guardia Zibilarekin izandako tiroketan hildako José Bernardo Bidaola Txirrita ETako militantearen eta Gerra Zibileko gudarien omezez Gudari kalea izendapena onartu zitzaionean División Azul kaleari. Alderdi politikoez hainbat aldaera irmoki defendatu zituzten: Gudari Kalea, Eusko Gudarien kalea eta Euskal Gudarien kalea. Azkenean, Gudari kalea izena jartzea onartu zen⁶⁴:

Todos los que lucharon en aquella Guerra contra las tropas franquistas merecen todo ensalzamiento, pensando que a todos ellos los simboliza la figura del Gudari. Recordando que todo el pueblo vasco se movilizó ante la llamada por parte del Gobierno que presidía José Antonio Aguirre. Que en aquella ocasión la mayoría de los batallones fueron héroes, teniendo que enfrentarse a un ejército totalmente convencional y que el ejército vasco no era gente de guerra sino de paz, y que fueron héroes anónimos que lucharon encuadrados en batallones. Por eso piensan que la figura del Gudari simboliza a aquellos resistentes.

Tolosan honakoa izan zen 1979an onartutako kale izendegia⁶⁵:

- Antonio Elósegui kalea: Korreo kalea
- División Azul kalea: Gudari kalea
- Madrid etorbidea: Araba etorbidea
- Comandante Checa kalea: Ibarralde kalea
- Martirien kalea: Lekuona pintorearen kalea
- Generalisimoaren etorbidea: Foruen etorbidea
- Abuztuaren 11 kalea: Lizardi olerkariaren kalea
- Carlos VII plaza: Berdura plaza
- Pío XIIaren etorbidea: Martín José Iraola etorbidea
- Sacramento aldapa: Kondeko aldapa
- Justizia plaza: Euskal Herria plaza
- Juan de Ávila kalea: Bizkaia Kalea
- Pilar auzoa: Zuloaga etxebizitza-multzoa
- Pantaleon Zabala etxebizitza-multzoa: Lapurdi etxebizitza-multzoa
- Columna Sagardia etxebizitza-multzoa: Zuberoa etxebizitza-multzoa

Frankismo garaia osteko trantsiziotik 2006ra artean, kale izendegia eta leku izenen azken eguneratzea egin artean, aipagarria da II. Errepublika garaiko euskal idazle abertzaleen izenak espazio publikoak izendatzeko erabili izana: Antonio Maria Labaien plaza, Eduardo Mokoroa lorategia, Emeterio Arrese kalea, Jon Andoni Irazusta pasealekua, Lizardi plaza eta Lopez-Mendizabal pasealekua. Aldiz, garai berean politikari gailen anitz tolosarrak izanik ere (Enrique de Francisco sozialista, Galo Díez anarkista, Ramón María Aldasoro errepublikanoa, Doroteo Ziaurriz jeltkidea...), politikari ez idazle bat bera ere ez da agertzen nomenklaturan⁶⁶.

64. TUA, A-1-243, 11 fol., 1979/06/17 u.a.l.

65. TUA, A-1-243, 7 fol. 1979/05/10 u.a.l.; TUA, A-1-243, 9 fol., 1979/06/07 u.a.l.; TUA, A-1-243, 11 fol. u.a.l.; TUA, A-1-243, 1979/06/17 u.a.l. eta TUA, A-1-243, 13 fol. 1979/07/06 u.a.l.

66. 2006/07/27-ko u.a.l. 3.-4. eta 78.-93 fol., <http://www.tolosakoudala.net/eu/ficheros/3_2404eu.pdf>

Alabaina, ez dira neurri berean hiri guztietan eta izen guztietan burutu aldaketa horiek. Horrek agerian jartzen du trantsizioan gertatu ziren aldaketa politikoezko erresistentzia. Beste zenbait tokitan aldaketek tokiko zenbait gatazka eta auzokoen protestak eragin zituzten. Gerra Zibilean inposatutako izen batzuek bere horretan dira oraindik; hala ere, denboraren joanak horien benetako esangura ezabatu du, eta irauan duten izenek jada ez dituzte gogoratzen gerra osteko gizarteari inposatu nahi izan zizkioten balioak, esate baterako hori gertatu da Gipuzkoako herri askotako Nafarroa etorbidearekin. Izen horren atzean zegoen sistema eta memoria historikoa lausotuz joan da eta orainaldian zentzua galdu dute. 2002an espainiar estatuko 8.107 udalerrietatik 3.423tan mantentzen zen toponimia frankista, hau da, espainiar estatuko biztanleen %42a diktadorearekin zerikusia zuen kale-izendegia mantentzen zuten herri-hirietan bizi zen⁶⁷. Nafarroan oraindik Buñuelen Franco jeneralaren kalea eta Iruñean Rodezno Kondearen plaza (altxamenduaren bultzatzaileetakoa eta frankismoko lehen justizia ministroa) eta Julio Ruiz de Alda kalea (José Antonio Primo de Riverarekin batera Falangea fundatu zuena) izenek irauten dute.

3.3. Pertsonen memoria-lekuak

Erregimen frankistak memoriaren politika izugarri indartsu bat garatu zuen, bere erreferente ideologikoez eta bere interes politikoez bat zetorren irudia iraunarazteko asmoz⁶⁸. Zeregin horretarako, Gerra Zibila espazioaren erdian kokatu zuten, liberalismoak eta demokraziak ekarri zituzten hondamendien helduera gisa eta Espainiaren berpiztearen erreferentzia gisa. Beste alde batetik, estatu berriak ezabatu nahi zituen historiako pasarteak gogora ekarriko zituen gizabanako edo gertaera oro memoria historikotik ezabatzeak ahalegin handia egin zuen. Gauzak horrela, erregimenaren aurreneko hilabeteetan, aurretik eraiki ziren monumentuetako asko kendu eta horien ordeze beste batzuk jarri zituzten, garai errepublikarrean eraikiak ez baziren ere, estatu berriak bere historiatik ezabatu nahi zituen pertsonaia eta gertaera askotxoren sinbolo baitziren. Tolosan, bertako seme kutuna zen Felipe Dugiolsen, Filipinetako kanpainen kondekoratutako militar liberalaren estatua kendu eta 1936ko Gerrako martirien omenezko monumentua ezarri zuten, alkatearen hitzetan⁶⁹:

Que en esta nueva era a la que renace España merced a la valiente actuación de nuestro Glorioso Ejército y de las bravas Milicias que con tanto heroísmo vienen sacrificándolo todo por la salvación de nuestra Religión y de nuestra fé cristiana, cree y entiende se hace preciso desterrar de un Municipio todo cuanto tenga relación con el materialismo que es consecuencia de la taimada escuela de liberalismo que, prescindiendo de toda clave de precedentes en el orden sobrenatural, busca sólo el humanismo. (...) desaparezca la estatua de D. Felipe Dugiols así como la calle de ese mismo nombre y en el pedestral de aquel se erija en memoria de esta España que comienza a resurgir, aplastando al máximo, vibrante y llena de fe, otro monumento que represente en su autenticidad a los inmortales caídos en esta Cruzada que son nuestros Mártires de la Tradición”.

67. DUCH, Montserrat. “Toponimia franquista en democracia”. In: FORCADELL, Carlos (*et al.*). *Usos de la historia y políticas de la memoria*, 1. arg. Zaragoza: Prensas Universitarias de Zaragoza, 2004; 273-286 or.

68. REIG TAPIA, Alberto. *Memoria de la guerra civil. Los mitos de la tribu*, 1. arg. Madrid: Alianza editorial, 1999.

69. TUA, A-1-233, 45.-45ifr fol., 1936/10/16 u.k.b.a.l. eta TUA, A-1-233, 135 fol., 1937/04/28; aipuairen iturria lehenengoa.

Aitzinean aipatu bezala, gerraren zentralitatea bi fronte kontrajarrietan bistaratu zen; bata, II. Errepublikari eta izu-laborri gorriari lotua, eta bestea Jainkoagatik eta Espainiagatik eroritakoen memoriari lotua eta estatu berriaren irudien aldarrikapenei lotua. Lehena, zenbait liburutan eta beste kultur gordailu batzuetan irudikatu zuten. Bigarrena, berriz, eguneroko oroitzapenari eta elkarbizitzari bideraturiko espazio fisiketan, aurrenekoen antzera, memoria-leku garrantzitsuak zirenez gero. Esate baterako, matxinatutako militarrek Tolosan izendutako Udal Kudeaketa Batzordearen lehen batzarreko lehen puntuan errepublikarrek fusilatutako zituzten tolosar tradizionalistak gogoan hartu zituzten⁷⁰:

[...] dedicar un sentido recuerdo de cariño y de homenaje a la vez, a la memoria de los doce mártires que tan traidora y cobardemente fueron asesinados por las hordas rojas al servicio de Moscú, extrayéndolos de la cárcel de esta Villa y conduciéndolos a San Sebastián (...) jamás se olvidará, pues su recuerdo imperecederamente perdurará en nuestros ya entristecidos corazones y con su muerte heroica su sangre será fecunda para la salvación de España en esta Santa Cruzada.

la udalerrri guztien erdiguneetan tamaina erdiko, zein tamaina handiko monumentuak eraiki ziren, gerrako pertsonaien, erorien, martirien, eta gertaeren iraupenari eustera bideratutako oroitzapen-politika monumentalaren adierazpide. Eraikinen barruan gerrako oroitzapena eguneroko zerbait bilakarazten zuten hilobiak topatzea ohikoa zen, gizabanakoen bizitza pribatuan presente egon zitezten. Monumentuen artean estatuek garrantzi berezia zuten memoria-leku gisa, hiri-espazioan zuten leku gaile-nagatik, erdigune soziologikoagatik eta zeukaten indar sinboliko biziagatik. Garrantzia horrexegatik, hain zuzen, Francoren estatuek bere figurari egiten zitzaion aitortza publikoa sinbolizatzen zuten. Monumentuen eraikuntzak halako hedapena izan zuen, ezen 1939an Gobernazio Ministerioak agindu bat ebatzi baitzuen monumentuen eraikuntza kontrolatzeko⁷¹: “con objeto de dar unidad de estilo y de sentido a la perpetuación por monumento de los hechos y las personas de la Historia de España, y en especial a los conmemorativos de la guerra y en honor de los caídos”.

Tolosako erdigune soziologikoan, Foruen plazan, egungo Triangelu plazan, aipatutako Felipe Dugiolsen monumentua suntsitu eta diru-bilketa herrikoiaren bidez 9,25 metrotako obelisko bat altxatu zen. Joaquín Labayen udal arkitektoaren proiektu honek zera lortu nahi zuen: “que perpetúa la memoria de los Caídos en el Glorioso Movimiento Nacional”. Udalbatzak Gobernazio ministerioari luzatutako baimen eskaerako txostenean honakoa esaten zen⁷²:

[...] en el deseo y afán de subvenir en la erección a ese pequeño monumento lapidario tiene sumo interés en aportar voluntariamente su óbolo, así como al mausoleo común que este Ayuntamiento trata así mismo de construir en la Villa en memoria de todos sus mártires de la Tradición y de los valientes soldados y milicias que sucumbieron gloriosamente en el frente de combate luchando contra los enemigos de Dios y de España.

70. TUA, A-1-233, 2ifr or., 1936/08/12 u.k.b.a.l.

71. Gobernazio Ministerioaren dekretua, *BOE*, 1939/08/22, 234 zkia., 4614 or.

72. TUA, 2408. k., “*Proyecto de monumento conmemorativo a los Caídos de la Villa de Tolosa*”, kontzeptuaren ideia 1939/11/14koa; TUA, 2408. k., “*Proyecto de monumento a los caídos*” baldintza plegua 1941eko maiatzekoa; TUA, A-1-234, 13 fol., 1939/09/02 u.k.b.a.l. eta AGA, 5.371. k.

Helburua zera zen⁷³:

Vamos todos, señores, a forjar, en bandeja de oro y sangre de esa bandera, una España tan grande, tan grande, que la levantemos junto al cielo, para que podamos colgar la Cruz en las mismas estrellas. Una España tan grande que pueda arrancarle sonrisas a las madres que han perdido los hijos en la guerra, que cuando vean a España tan grande puedan decir: "Me mataron a mi hijo en la guerra y no me importa. Viva España, porque vive por fin feliz.

1942ko abuztuaren 9an inauguratu zuten monumentu hau, Tolosa matxinatuen menpe geratu zen egunaren VI. urtemuga ekitaldien barnean⁷⁴. Era berean, eraikinen barruan gerrako oroitzapena eguneroko zerbait bilakarazten zuten memoria irauarazteko bitartekoak topatzea ohikoa zen, gizabanakoen bizitza pribatuan presente egon zitezen. Nabarmentzekoak dira Tolosako Udaletxean jarri zituzten oroitzapen plakak, matxinatuak Tolosa menpean hartu zuten data goraiatzeko eta zinegotzi martirien memoria irauarazteko⁷⁵: "11 de Agosto de 1936. Fecha memorable de la liberación de Tolosa del poder del Comunismo".

Matxinatutako militarrei, kale izenez eta monumentuez gain, hainbat ohorezko izendapen ere eskaini izan zitzaizkien: urrezko dominak, seme kuttun tituluak, ohorezko alkatetzak... Franco ohorezko alkate izendatu zuten 1949ko abuztuan Gipuzkoa-ko udal gehienek. Gipuzkoako alkateek Donostiako Aieteko jauregian oporretan zen Francori bisita egin zioten abuztuaren 23an, izendatzearen erabakia eskura eramateko⁷⁶. Tolosan, erabaki hori ondoko arrazoiengatik hartu zen:

S. E. el Jefe de Estado Generalísimo D. Francisco Franco Bahamonte (sic) salvador de España en su lucha contra la tiranía y la barbarie comunista por sus constantes desvelos en pro de los Municipios y de la Administración local y como gratitud por las dos visitas con que se dignó honrar a esta Villa.

Diktadura luzatzeak oroitzapenaren ospakizun-baldintzak ongi zehazteko aukera eman zuen. Memoria-lekuak espazioan eta denboran ezartzeari, bando militarrean gerran hildakoen aldeko hileta-elizkizunak eta omenaldiak gehitu zitzaizkion, joan zirenak nabarmenduz, beti ere gerraren garaileengan soilik zentratuaz. Esate baterako, José Calvo Soteloren fusilatzearen lehen urteurren eguna eta José Antonio Primo de Riveraren fusilatzearen bigarrena lutu nazionaltzat izendatu zituen Francok⁷⁷. Tolosan, Udal Kudeaketa Batzordearen ekimenez, José Antonio Primo de Riveraren ari-maren aldeko hileta elizkizunak ospatu zituzten 1938an⁷⁸ eta Calvo Soteloren eta Sanjurjoren heriotzen urtemugetan Francori doluminak helarazi zitzaizkion⁷⁹: "acordó

73. EZQUIAGA, Simón (*et al.*) *op cit.*, 1939; 64 or.

74. TUA, 1781 fol., 1942/08/07, a.u.e.l.

75. TUA, A-1-233, 81 fol., 1937/01/08 u.k.b.a.l. eta TUA, A-1-233, 177ifr.-179ifr fol., 1937/12/24 u.k.b.a.l. Oroitzapen plaka honen testuingururako ikus: ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel; SAIZAR, Joxemi; ZUBELDIA, Leire. *1936ko Gerrako oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean*, 1. arg. Tolosa: Galtzaundi Euskara Taldea eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, 2008; 123-127 or.

76. TUA, A-1-239, 8ifr fol., 1949/08/19 u.k.b.a.l. eta erredakzioa: "Franco recibe a los representantes de los de los municipios guipuzcoanos", *La Voz de España*, 1949/08/24, 1 eta 4 or.

77. Estatuko Gobernuaren dek.: 319/37, *BOE*, 1937/07/12, 265 zkia., 2330 or. eta Estaturuaren dekretua z/g, 1 art., *BOE*, 1938/11/17, 140 zkia., 2432 or.

78. TUA, A-1-234, 54.-58ifr fol., 1938/10/14 u.k.b.a.l.

79. TUA, 1992. k., 629 fol., 1937/07/28 a.u.e.l.

constara en acta el profundo sentimiento que le producía la pérdida de tan relevantes figuras nacionales y testimoniar a VE su condolencia más viva y expresiva”.

Amaitzeko, “Kausa Nazionaleko heroi, martiri eta pertsona esanguratsuenen ize-nak marka komertzial edo establezimenduen titulu gisa ez erabiltzeko” agindua eman zuten, pertsonen memoria-lekuen kudeaketa estatuak bereganatuz⁸⁰. Ildo berean, “Aberriaren aldeko Sufrimenduaren dominak” emateko araudia ere onartu zuten⁸¹.

3.4. Garaileen alderdiko biktimen eskubideak

Nazioarteko zuzenbidearen arabera, gizateriaren aurka jazotako jazarpenen biktimek egia jakiteko, justizia lortzeko eta konponketa jasotzeko eskubidea dute. Frankismoa gurutzadan hildako martiriei hiru alderdi horiek eskaintzen saiatu zen, helburu duin batengatik hil zirela argudiatuta. Honela, eskubideak aitortzearekin batera, praktikara eramateko erabaki ugari hartu zituzten.

Justiziar dagokionean, II. Errepublikaren proklamaziotik matxinada arte, Errepublikaren aurka burututako krimenen arduradunei amnistia eman zitzairen 1939ko dekretu baten ondorioz⁸² eta “Kausa Jenerala” izeneko auzibide erraldoia jarri zuten abian, gerra hasi zenetik alderdi errepublikanoak eragindako hilketak ikertzeko helburuarekin⁸³. Ondokoa zen estatuko herri guztietan gauzatutako makro-auzibide horren helburua:

A la Historia y al Gobierno del Estado interesa poseer una acabada y completa información de la criminalidad habida bajo el dominio marxista. En algunas provincias de las que padecieron la tiranía roja se instruyeron a raíz de su liberación, procesos inquisitivos que conviene sean extendidos al resto del territorio sojuzgado. Importa que dichas pesquisas, seguidas con la denominación de “Causa General”, adquieran su verdadera importancia, abarcando toda su extensión e intensidad que alcanzó la delincuencia, pero reduciendo a síntesis el conjunto de averiguaciones que por sus similitudes y coincidencias descubren un plan preconcebido, fruto de unas mismas inspiraciones al servicio de los más perversos ideales. Preténdese recoger en la Causa, desde los actos preparatorios de la subversión, hasta la conducta final de los dirigentes vencidos, e investigar, cuanto cierne al crimen, sus causas y efectos, procedimientos empleados en su ejecución, atribución de responsabilidades, identificación de las víctimas y concreción de los daños causados lo mismo en el orden material que en el moral, contra las personas o contra los bienes así como contra la Religión, la Cultura, el Arte y el Patrimonio nacionales. La unidad de criterio en la dirección que permite orientar la busca de antecedentes, reunir y relacionar las pruebas dispersas y operar una constante valoración de los hechos, aconseja encomendar esta labor al Ministerio fiscal por ser ella materia específica de sus funciones, así como por la unidad, disciplina y dependencia severas que informan su organización.

80. Estatuburuaren Idazkaritza Nagusiaren ordena, *BOE*, 1937/11/02; Gerra-Idazkaritzaren ordena, *BOE*, 1937/11/22.

81. Dekretua, *BOE*, 1938/10/01.

82. Legea, *BOE*, 30/09/1939, 273 zkia., 5421.-5422 or.

83. “Causa General” izeneko auzibidea abiarazteko dekretu baten bidez Auzitegi Goreneko Fiskalari ahalmenak eman zitzaizkion 1940ko apirilaren 26an, ondoko helburuarekin: “*reúnan las pruebas de los hechos delictivos cometidos en todo el territorio nacional durante la dominación roja*”. Justizia Ministerioaren z/g dek., *BOE*, 1940/05/04, 125 zkia., 3048.-3049 or.

Izan ere, Justizia ministerioak Frente Popularrari ondokoa egozten zion⁸⁴:

El Frente Popular, desde que asumió el Poder, a raíz de las elecciones de febrero de 1936 –falseadas en su segunda vuelta por el propio Gobierno de Azaña, asaltante del mando político-, practicó una verdadera tiranía, tras la máscara de la legalidad, e hizo totalmente imposible, con su campaña de disolución nacional y con los desmanes que cometía o toleraba, la convivencia pacífica entre los españoles. El Alzamiento nacional reasultaba inevitable, y surgió como razón suprema de un pueblo en riesgo de aniquilamiento, anticipándose a la dictadura comunista que amañaba de manera inminente. Al producirse, el 18 de julio de 1936, este legítimo movimiento de defensa, acaudillado por el general Franco, el Gobierno rojo llevó su crueldad a extremos difícilmente imaginables, valiéndose de sus propios agentes y dando rienda suelta a los bajos instintos de las turbas, armadas por el propio Gobierno, y de numerosos delincuentes comunes, dotados igualmente de armas y de autoridad, extiende el terror por toda España sometida al marxismo.

Kausa jeneralean ondoko puntuak aztertu ziren⁸⁵:

- Ordena publikoa altxamenduaren garaian.
- “Movimiento Nacional” zeritzana nola gauzatu zen.
- “Gorrien dominazioan”, Tolosaren kasuan 1936ko uztailaren 18a eta abuztuaren 11a artean, burututako erailketak.
- Asasinatzaileen pertsonalitatea.
- Izuaren antolakuntza eta inspiratzaile zuzenak eta exekututzaile nagusienak zeintzuk izan ziren.
- Erailketak gauzatzeko prozedimendu eta lekurik arruntenak.
- Krudeltasunik larrieneko asasinatuak.
- Erljio-jazarpena.
- Gorrien justizia administrazioa eta kartzelen erregimena.
- Bankuen interesen eta haien bezeroen eskubideen kontrako atentatu nagusienak.
- Jabetza eskubidearen kontrako garrantzizko bestelako jazarpenak.
- Artelanen eta kultur elementuen kontrako garrantzizko atentatuak.

Horretarako ondoko informazioa bildu zuten herriz herri⁸⁶:

- Deklarazio hartzeak fusilatutakoen familiartekoei.
- Aurreko deklarazioetan salatzen ziren gizon eta emakumeen deklarazio hartzeak.
- Errepublikarrek fusilatutako edota desagerrarazitakoen zerrendak.
- Tolosan, gerra garaian, tolosarrak ez ziren jasotako soldaduen gorpuen zerrendak.

84. MINISTERIO DE JUSTICIA. *Causa General. La dominación roja en España*, 1. arg. Madrid: Ministerio de Justicia, 1943; 11-12 or.

85. AHN, Fondos Contemporáneos, Causa General, 1336. k. “*pieza principal*”, Gipuzkoari dagokiona.

86. AHN, Fondos Contemporáneos, Causa General, 1334. k., 71. sorta, Tolosa espedienteak.

- Gorriek gauzatutako izu-ikara, tortura, eraikinen erreketeta, lapurreta, eliz suntsiketeta eta abarren zerrrendak.

Egjaren ezagutzari dagokionean, Kausa Jeneralaren bidez alde Nazionaleko biktimen historia dokumentatzeaz gain, hauen gorpuak non hobiratuak izan ziren ezagutzeko baliabideak eskaini zituen estatu frankistak. Errepublikazaleek hildakoen gorpuak lurperaturik zeuden hilobiak irekitzeko baimena eman eta martirien panteoietara eraman zituzten. Deshobiraketak 1939ko maiatzaren 6ko ordena baten bidez arautu ziren⁸⁷: “toda persona que desee exhumar el cadáver de alguno de sus deudos que fueron asesinados por la horda marxista, para inhumar/os de nuevo en el cementerio, puede solicitarlo del Gobernador civil de la provincia correspondiente”. Fusilatuen senideak gastu guztietatik salbuetsita geratu ziren eta 1939ko maiatzaren 16ko eta 1940ko otsailak 7ko eta uztailaren 22ko aginduen bidez “horda marxisten biktimen errestoak” deshobiratzeko jarraitu beharreko tramiteak ere erraztu zituzten⁸⁸. Tolosarren kasuan, errepublikarrek fusilatutako 17 eskuindarren gorpuak Hondarribian, Donostian eta Bilbon deshobiratu eta bertako hilerriko martirien panteoira ekarri zituzten⁸⁹. Fusilatuz gain, Estatuan zehar matxinatuen bandoko frentean hildako tolosarren ia gorpu guztiak ere Tolosara ekarri zituzten. Francisco Etxeberria Gezalaga (1937/10/16an Leonen hila) eta Lorenzo Mateo Peñarrubia (1937/03/31an Otxandion hila eta Eskoriatzan lurperatua) soldaduak berriz haiek hobiratuta zeuden hilerrietan deshobiratu eta Tolosakora ekarri zituzten haien errestoak.

Era berean, Tolosako inguruko gerra-lerroan edota Tolosako odol-ospitalean hildako soldadu ez Tolosarrak, haien familiek hala eskatuta, bertako hilerrian deshobiratu eta haien bizileku edota jaiolekuetara eraman zituzten. Horietako gehienak erreketeta nafarrak ziren. Aipatzekoa da borbondar erregegaiaren familia-kide bat ere hobiratuta egon zela Tolosako hilerrian, Carlos Borbón Orleans hain zuzen ere. Don Juan printzearen emaztearen anaia zena, 1936/09/28an Elgoibarko frontean hil eta hurrengo egunean Tolosako hilerriko Elosegi markesaren panteoian hobiratu eta han egon zen harik eta haren gorpuzkinak 1941/06/07an Sevillara eraman zituzten arte⁹⁰. Badirudi tarte horretan espainiar aristokraziaren bisita ugari burutu zirela Tolosako hilerriara.

Aitzinean esan bezala, altxamenduaren alde borrokatu eta hil ziren boluntarioak eta deialdi militarretako soldaduak hilerrietako “loriaren eta memoriaren” panteoietan hobiratuak izan ziren, zegozkien dolu ekitaldi eta oroitzapen ospakizunen ondoren. Tolosan fusilatutako tradizionalistak Martirien omenezko San Jose panteoian hobiratu zituzten eta Gurutzadan hildako martiriak edo frentean hildako erreketeta, falangistak eta soldaduak San Vicente, San José, San Miguel, San Juan eta San Antonio panteoietan⁹¹:

- San Antonio panteoia: Jesús Iraola Alberdi (1937/09/07).
- San José panteoia: Martín Ezkurdia Otegi (1937/06/16) eta Pedro Salaberria Calonge (1939/04/10).

87. Legea, *BOE*, 1939/05/17.

88. Gobernazio Ministerioaren z/g agindua, *BOE*, 1940/02/08, 39 zkia., 1015.-1016 or.

89. TUA, A-1-233. 33ifr fol., 1936/10/02 u.k.b.a.l.

90. TPA, heriotzen 24. lib., 1933-1937, 256. ifr fol.

91. TPA, 24. p.h.e.a., 217.-221ifr fol.; TPA, 25. p.h.e.a. 81ifr.-82 fol.; TUA, 3767. k., 1. lib., 146 or.; TUA, 3767. k., 2. lib., 42 or.; TUA, 3767. k., 2. lib., 34. eta 38 or. eta TUA, 3767. k., 1. lib., 140 or.

- San Juan panteoia: Pantaleón Zabala Amunarriz (1937/06/26); León Goikoe-txea Olano (1937/07/25); Miguel Mintegi Esnaola (1938/04/07) eta Julio Mujika Zaragueta (1937/04/17).
- San Miguel panteoia: Martín Ezkurdia (1938/12/30).
- San Vicente panteoia: Lorenzo Mateo Peñarrubia (hobiratze data ezezaguna) eta José Garrido Urbistondo (1939/06/12).

Era berean, Francoren dekretu baten bidez⁹² eta “aurrez eliza agintariek hala onartuta”, elizetako hormetan, “gurutzadan eroritakoen eta iraultza marxistaren biktimen izenak” inskribatzea agindu zuen. Horrez gain, nazionalen bandoan Gerra Zibilean hildako 80 pertsonen gorpuzkinak eraman zituzten Tolosako hilerritik Cuelgamuroseko Valle de los Caídos-era, 1959ko martxoaren 24an eta 1962ko uztailearen 5ean. Erorien monumentu nazionalera eramandako haiek tolosarrak, Tolosaldeko frontean hildakoak edo Tolosako odol-ospitalean hildakoak ziren⁹³.

Konponketa jasotzeko eskubideari dagokionean, matxinadaren alde borrokatu zutenek edota hil zirenen familia kideek zenbait neurri jasotzeko aukera izan zuten: lanpostu publikoetan lan egiteko erraztasunak, diru-laguntzak, pentsioak eta zenbait pribilegio eta salbuespen. Lanpostuei dagokienean, estatu frankistak besteen artean ondoko lege eta ordenak ebatzi zituen: Gerrako mutilatuak udaletan kontratatzeko ordena⁹⁴; mutilatu eta kartzelatu ohiei estatuaren administrazioan plazak gordetzeko legea⁹⁵ eta loteria administrazioetan, tabako saltokietan eta gasolina salmenta lekue-tako lanpostuetan frentean hildakoen alargunei edo alaba ezkongabeei kontzesioak esleitzeko erraztasunak ematen zizkien legea⁹⁶. Tolosako udaleko funtzionario pos-tuen %30a garaileen bandoko mutilatu, borrokalari ohi eta abarrentzat gorde zen⁹⁷.

Bestetik, estatuak diru-laguntzak eta pentsioak emateko legedia egokitu zuen. Batetik, Nazionalen bandoan borrokan ari ziren boluntarioen familia behartsuei diru-laguntzak⁹⁸ ematea; bestetik, borrokan hildakoen senitartekoei pentsioak ahalbide-tzea⁹⁹; azkenik, gerran desagertutako kabo eta soldaduen familiei pentsioak emate-a¹⁰⁰, baita borrokalari ohiei diru-laguntzak ematera ere¹⁰¹. Tolosan, udal kudeaketa batzordeak alde frankistan hildako udal langileen alargunek haren senarrak jasotzen

92. Estatuburuaren z/g dek., 2. art., *BOE*, 1938/11/17, 140 zkia., 2432 or.

93. AABVC, 2709.-2712. eta 21325.-21407. erreg zkia.; 624-627, 7678.-7680. eta 7686.-7690. kolunbarioak eta TUA, 2064. k., 777-787 fol., 1962/06/19 u.i.e.l.

94. Gobernazio ministerioaren ordena, *BOE*, 1939/03/23.

95. Estatuburutzaren legea, *BOE*, 1939/09/01.

96. 1939ko uztailearen 22ko legea, *BOE*, 208 zkia., 1939/07/27, 4048.-4050 or.

97. TUA, A-1-234, 5ifr.-10 fol., 1938/05/27 u.k.b.a.l.

98. Estatu Gobernuaren 174. dek., *BOE*, 1937/01/11; Gobernu Generalaren ordena, *BOE*, 1937/01/26; Gobernu Generalaren ordena, *BOE*, 1937/02/07; Gerra-Idazkaritzaren ordena, *BOE*, 1937/10/04; Gerra-Idazkaritzaren ordena, *BOE*, 1937/11/20; Gerra-Idazkaritzaren ordena, *BOE*, 1937/11/22; Barne ministerioa, *BOE*, 1938/06/24; Barne ministerioa, *BOE*, 1938/08/14.

99. Gerra-Idazkaritzaren ordena, *BOE*, 1937/10/04; Gerra-Idazkaritzaren ordena, *BOE*, 1937/08/23; Gerra-Idazkaritzaren ordena, *BOE*, 1937/11/20.

100. Ejertzitoaren ministerioaren ordena, *BOE*, 1939/09/24.

101. Dekretua, *BOE*, 1939/05/18, Gobernazio ministerioaren ordena, *BOE*, 1939/05/31; Gobernazio ministerioaren ordena, 1939/06/20.

zuen soldataren %50a pentsio moduan jasotzea erabaki zuen¹⁰². Diru-laguntza eta pentsio horiek Gerra Zibiletik haratago ere joan ziren, izan ere, Estatuak 1932ko altxamenduan eroritakoentzako familiei pentsioak emateko legea onartu baitzuen¹⁰³ eta txirotasunean bizi ziren III. Karlismaldiko beterano karlista boluntario tolosarrei biziarteko errenta eskaintzea erabaki zuen Tolosako Udal Kudeaketa batzordeak¹⁰⁴.

Matxinatuen bandoko martiriek jaso zituzten beste zenbait pribilegio ondokoak izan ziren: 1937ko uztailaren 17az geroztik askatasun gabetuak izanei FET y de las JONSeko militante izaera ematea¹⁰⁵ edo frentean hildako Nazionalen bandoko jeneralen, buruzagien, ofizialen eta klaseen umezurtzei eskolako matrikula doan jartzeko ordena¹⁰⁶, zeina Tolosan ere gauzatu zen¹⁰⁷. Ildo berean, agiriak tramitaterakoan edo posta frankiziak kudeatzerakoan zenbait salbuespen erdietsi zituzten; hala nola, frentean borrokan ari zirenen familiei dokumentuak legitimatzea eta legalizazioa doakoa izatea ahalbideratzea¹⁰⁸; bando berean borrokan ari zirenen familientzat dokumentu ofizialek tinbreen zergak kentzea¹⁰⁹; matxinatuekin borrokan ari zirenei edo ospitaleratura zeudenei egunkariak, liburuak edo pakete txikiak helarazteko bidalketa frankeoa kontzertatzea¹¹⁰; nazionalekin borrokan ari zirenei FETeko gazte erakundeek Eguberri eta Urte berri onak opatzeko gutunak helarazteko txartelei frankizia postala onartzea¹¹¹.

4. ONDORIOAK: “GURUTZEA, BANDERA ETA EZPATA”

“Cruz, bandera y espada,
que constituyen el símbolo de una España verdadera,
redimida en nuestros días”.

Esteban Bilbao, Tolosa, 1938/05/02.

Esteban Bilbaok Tolosan irakurritako hitz hauek ondo laburbiltzen dute garai berriaren ardatzak eta balioak: Erljio katolikoarekiko erabateko atxikimendua, *Movimiento Nacional*-aren oinarri politikoak eta ideologikoak eta 1936ko Gerraren garaipenaren memoria¹¹². Honen guztiaren adibidea da “Erorien Monumentua” bera, izan ere, guru-

102. TUA, 1988. k., 238 fol., 1938/06/13, u.i.e.l.; TUA, 1988. k., 246 fol., 1938/07/12, u.i.e.l.

103. Legea, *BOE*, 1939/07/24.

104. TUA, A-1-234, 89ifr.-93 fol., 1939/01/20, u.k.b.a.l.

105. Dekretua, *BOE*, 1938/10/01.

106. Hezkuntza Nazionaleko ministerioaren ordena, *BOE*, 1938/03/19.

107. TUA, 2000. k., 1940/07/06, a.u.e.l.; TUA, 2000. k., 1460 fol., 1940/07/12, a.u.e.l.

108. Justizia ministerioaren ordena, *BOE*, 1938/10/30.

109. Ogasun ministerioaren ordena, *BOE*, 1938/06/21.

110. Ogasun eta Ekonomia ministerioaren ordena, *BOE*, 1938/06/24.

111. Ogasun ministerioaren ordena, *BOE*, 1938/12/20.

112. Esteban Bilbao 1916an Tolosako barrutitik Gorteetako diputatu aukeratutako politikari karlista zen, dikta-doreak 1939an Justizia Ministro izendatu zutena. Hitz hauek 1938ko maiatzean esan zituen Tolosan, Nafa-

tzeta, erorien izenak, Falangearen eta Karlismoaren sinboloak eta garaipenaren erramu-koroa¹¹³ bezalako elementu nagusiz baitzegoen osatua obeliskoa.

Memoria espazioaren eta denboraren lorratz soiletatik, materiagabekoaren eta balioen jabetasunera igaro zen, ohiko jarduera eta ohituretan aztarna ezabagaitz bat uzteko. Izan ere, Le Goff-en arabera, memoria historikoa boterea lortzeko borrokan egitate garrantzitsua da, memoriak eta ahanzturaz jabetzea gizarte historikoak menperatu dituzten eta menperatzen dituzten klase, talde edota gizabanakoen kezkarik handienetako bat delarik¹¹⁴. Honela, erregimen diktatorial frankista kolektibo ezberdinen memoriak berreraikitzen, ahazten, isiltzen edo ordezkutzen saiatu zen. Conxita Miren arabera¹¹⁵, Frankismoaren oinarriko enfrentamendu sozialak, sistema politiko, balio ideologiko eta portaera arau berriak inposatzeko, errepresioa eta kontrol soziala beharrezko zituen.

Estatu berria antolatzeko prozesuan, beraien jokabidea legitimatuko zuen egitate sorta bat herritarren memorian txertatzeaz arduratu ziren agintari frankistak. Orduan berrinterpretaturiko iraganeko egitateak eta orduko gertaerak jarraikortasun historiko bat ezabatu nahirik egikaritu ziren. Jai, oroitzapen omenaldi, kale eta mota horretako ospakizun ugariak xede horretara egonkortu ziren. Borroka zibilaren osteko urteetan, erregimen berriak gizartean gatazkaren interpretazio jakin bat inposatzeaz gain, 1936ko Gerra gorrien aurkako gurutzada modura goretsi zuen.

Hau guztiarekin zera ondorioztatu daiteke, denborari, espazioari eta pertsonei zegokien memoriaren politikaren helburua garai demokratikoaren aztarna oro ardura handiz ezabatu eta urrun-urruneko iragan baten eta orduko orainaldiaren arteko lotura egitea izan zela. Gerra Zibilarekin erlazionatutako iraganeko garaipenekin osatutako iraganeko loria militarra berreskuratzea ere, erregimenaren abiapuntu berria izan zen. Iragan loriosoz jabetzeko ahalegin honetan, orduko orainaldia trinkotzearren, Espainia katolikoa azaleratu zen inbasio marxistaren aurkako gotorlekutzat. Oso ugariak izan ziren, aberriaren aldeko jaiekin batera jai erlijiosoen uztartzeak. Egutegi frankista erregimenak inposatzen zuen memoria-politika berriaren eta memoria tradizional katolikoaren arteko uztardura zen, nazionalkatolizismoaren erakusgarri.

rroako 5. Brigadako buruzagi eta ofizialei dominak emateko eta sarjentu berrien zin egite ekitaldian: “Esa bandera flota sobre las frentes de los nuevos soldados, para acariciarlas con un beso de madre enorgullecida de sus mejores hijos. (...) Cruz, bandera y espada, que constituyen el símbolo de una España verdadera, redimida en nuestros días. (...) Noble espada que yo saludo, teñida con la sangre de tanto heroísmo glorioso; bandera, ayer proscripta, que hoy camina victoriosa por todas las cimas de la Patria; juventud heroica, predestinada por Dios para consumir la aventura más grande que la Historia registra en sus inmortales páginas”. EZQUIAGA, Simón *et al. op. cit.*, 1939; 63-66 or. eta *La Voz de España*, 1938/05/03, 9 or.

113. “La parte inferior o basamento en el que aparecen los cuatro grandes leones representan a la España Grande, indivisible, y libre de todas las ingerencias extranjeras. El segundo cuerpo del Monumento se destina a los nombres de los caídos con la fecha de su muerte sosteniendo por la España Grande e Inmortal que no olvida a sus hijos predilectos; en este cuerpo se colocarán grandes teas de bancos rematados con velas de cemento armado, con luces para alumbrar el día del aniversario de cada uno de ellos y sus nombres respectivos irán esculpidos en placas de mármol blanco. Este cuerpo se remata con un grupo escultórico de ángeles que con sus palmas y antorchas etc. Elevan a la gloria celeste a los muertos por Dios y por la Patria, todo esto rematado por una gran Cruz, símbolo de redención de la humanidad, Cruz que ha coronado y presidido siempre las banderas de los grandes hechos y heroicas empresas de la España Tradicional en el transcurso de los Siglos”. TUA, 2408, “*Proyecto de monumento conmemorativo a los Caídos de la Villa de Tolosa*”, 1939/11/14, proiektuaren memoria.

114. LE GOFF, Jacques. *El orden de la memoria*, gaztelerazko 1. arg. Barcelona: Paidós, 1991; 181 or.

115. MIR CURCÓ, Conxita. “Violencia política, coacción legal y oposición interior”. In: *Ayer*, 33. zkia., 1999; 118 or.

Bando nazionaleko biktimek jasotako neurriak ez zetozen bat biktima errepublikazaleek eta haien senideek jaso zuten tratamenduarekin, Espainiaren etsaitzat ere jo baitzituen propaganda ofizialak, gerran zehar egindako izugarrikeria askoren erantzule gisa erdeinatuak izan zirelarik. Gauzak horrela, familia askok euren samina isilean bizi behar izan zuten, inongo kalte-ordainik lortzeko aukerarik izan gabe, ildo horretatik bideraturiko ekintzek gehiegikeria gehiago pairaraziko zizkieten beldurrez. Erregimenaren arrazoibide ofizialetik aldentutako memoria mota orekiko etsaitasun nabarmena erakusten baitzuen diktadurak.

Berrogei urtez, ofizialki, talde batean bakar-bakarrik gertatu ziren hildakoak; "Jainkoaren eta Espainiaren izenean" eroritako hilobi komunak bakar-bakarrik; indarkeria iraultzailea baino ez. Eta guztiorretan oinarriturik abiatu ziren memoriaren politikak. Primo Levik "memorizidio" izenaz kontzeptualizatu zuena burutzen saiatu zen diktadura frankista, garaituei berau ezarriz propaganda autolegitimatzailek zorroztzenaren bidez eta beldurraren eta isiltasunaren halako kultura-suerte baten bidez¹¹⁶. Memorizidio bat, hortaz, bi zentzutan bururatua, lehenik garaipenaren biktimena, eta bigarrenik garaipena inposatzeko erabilitako bideena, indarkeriazko zamarena, alegia.

Frankismoa, bortizki saiatu zen menpean hartutako lurraldetik memoria historikoa ezabatzen, "memorizidioa" eredu arazgarri batean gauzatzen. Horrek guztiak erabat markatu zuen garaituen eta beren ondorengoen memoria; izan ere, ez baitzuten Tolosako hilabete eskaseko Gerra Zibilaren ankerkeria soil-soilik pairatu, baizik eta borroka amaituta jazarpen errukigabe baten xede ere izan baitziren. Gerraostean ezarritako errepresio kupidagabeak ez zuen soil-soilik eragotzi gerrak sorrarazitako zauri psikologikoen ezein balizko sendaketa, baizik eta garaituei eta beren senideei sufrimendu handiagoa gehitu baitziren. Alderdi garailearen eta galtzailearen arteko alderik handiena ondokoa izan zen: lehenek beren "eroriak" ohoratu eta haiengatik negar egiteko beren eskubideaz baliatu ziren edota memoria gehiegi erabiltzen zuten bitartean, azkenek beren malkoak eta beren mina irentsi, beren ideiak ezkutatu edo ukatu, beren izaera edota eragiletza ideologikoaz lotsatu eta haien memoria alboratu behar izan zuten. Hau guztia gerrako izugarrikeriak berrosatzeko inongo dolu-aukerarik gabe.

5. ERABILITAKO LABURDURAK

–Artxiboak eta agiriak:

AABVC: Archivo de la Abadía de los Benedictinos del Valle de los Caidos, Cuelgamuros.

AGA: Archivo General de Administración, Alcalá de Henares.

AGMAV: Archivo General Militar de Ávila, Ávila.

AHN: Archivo Histórico Nacional, Madrid.

AUA: Anoetako Udal Artxiboa, Anoeta.

BOE: Boletín Oficial del Estado.

BOJDNE: Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional de España.

116. RODRIGO, Javier. "La Guerra Civil: 'memoria', 'olvido', 'recuperación' e 'instrumentación'". In: *Revista de historia contemporánea Hispania Nova*, 6. zkia., 2006; 397-399 or. <<http://hispanianova.rediris.es/7/dossier.htm>>.

TPA: Tolosako Parrokia Artxiboa, Tolosa.

TUA: Tolosako Udal Artxiboa, Tolosa.

–Bestelako laburdurak:

art.: artikulua.

a.u.e.l.: alkatetzaren udal erregistro liburua.

dek.: dekretua.

erreg.: erregistroa.

et al.: eta beste batzuk.

fol.: folioa.

ifr.: ifrentzu.

k.: kaxa.

karp.: karpeta.

or. orrialdea.

p.h.e.a.: parrokiako heriotza erregistro liburua.

u.a.l.: udalbatzaren akta liburua.

u.i.e.l.: udalaren irteera erregistro liburua.

u.k.b.a.l.: udal kudeaketa batzordearen akta liburua.